

Xipri Arlaellaide

APAIZA ETA KAZETARIA

Zer gau goxoa!

S

ud Ouest egunkariak zioen joan den astean, Cannes hirian iragan G20, munduko herrialde aberatsenen bilkura, 20 milioi euro gosta dela.

Gogoeta egon naiz, non mila deabru xahutzen ahal zuten horrelako dirutza. Okzitaniako Tolosan agertzen den *La Dépêche du Midi* egunkariak eman dit erantzuna.

Egunaz lan dorpea egin behar, egunek zortzi oren baino gehiago iraunen ezin bururatzeko eztabaidetan eta, ikusiz egun garrantzitsuak zirela, munduaren geroa eskutan zeukatela, nahi zuten trenpuan izan jaikitzean, lan ona egiteko. Goizean fleitean izateko, baitezpadakoa zen gaua ongi iragaita, ongi lo egitea, goxoan. Baldintza hobereenetan behar zuten lo egin, gostarik gosta.

Eta kazetari deabru horiek denak jakiten! Gorago aipatu egunkariak erran digu zenbat gosta diren gau horiek. David Cameron Ingalaterrako nagusiak 1.950 euro eman dio gau bakoitz, Marriott hotelari. Zuk eta nik hilabetean irabazten duguna baino gehiago gau batentzat. Ahalkegarria! Lotsagarria! Baina, erran bezala, gaitzeko lana bazuten egiteko.

Bigarren, Hu Jintao, Txinako nagusia. Honek 11.600 eman dizkio gau bakoitz Gray d'Al-bion hotelari. Munduko herrialde handiena izaki eta ez zenuketen Ingalaterraren maila eman nahi halere. Handiena lehen beraz! Baina ez du lortu.



DANI BLANCO



David Cameron

Ingalaterrako

nagusiak, 1.950

euro eman dio gau

bakoitz, Marriott

hotelari. Zuk eta nik

hilabetean irabazten

duguna baino

gehiago gau

batentzat.

Ahalkegarria!



Amerikako Estatu Batuak ez ote dira Txina baino gehiago? Obamak jauntxo horri erakutsi dio ez zela orainokoan segurik lehen mailara hupatua. 35.000 euro utzi dizkio goiz guztiez Carlton hotelari. Urrezko domina!

Batere ez! Zilarrezkoa bakarrik! Urrezkoa Sarkozyk eskuratu du: 37.000 euro gau bakoitz Majestic hotelari. Soldata %170ez emendatua Eliseoko palazioan sartzean, gastu guztiak Estatuaren gain (etxe, janari, jantzi, argindar, sehi, zakur, katu eta denak), soldata, sakelako dirutzat dauka. Eskuin eta ezker dabilelarik erosi postalak ez baitzaizkio hurbilezkorik ere horrenbeste gostatzen, nonbait behar zuen dirua xahutu. Zergatik ez Cannesko hotelean? Handienean! Frantzia zein handia den jakin zezan mundu guztiak.

Horra beraz nolako gizonen eskuetan den gure geroa. Lotsarik gabe indarño bat eskatu diete greziarrei. Beren zergak oso gaizki pagatzen dituzte eta. Baina ba ote dakizue Greziako konstituzioaren arabera, armadoreek ez dutela zerga ordaintzerik? Ez da harritzeko bere itsasontziteria munduko bosgarrena baldin bada.

Leher egitekoari doakionaz aldiz, Grezia lehen. Bihar nor?

Baina ez dira denak leher egitekotan ikusten duzuen bezala. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



biharamunak bizi gaituen egun hauetan bestelako gaiak alboratuta gelditzen zaizkigu gogoan. Gurean, *Lauaxetaren*

Gaztelu Baltza argizagiz hornitu du hautesleagoak arerioen haserrerako. Espainiako Estatuaren karta kolore bakarrekoa litzateke, gure eremua eta katalanena margotu ezean. Izan ere, Nafarroarenak ere aldatzeko bidea hartu du eta inertzia honetan, aurki, datozenetan espainol eskuindarrena deskoloratua agertzeko zorian legoke. Espainiako arazo mingarrienetakoa izaten jarraitzen dugu, gu eta katalanak bestelakotzeko estrategiek behin eta berriz

Hauteskunde

huts egiten badie ere, ez dute amore ematen, eta, orain ere, esana dute publikoki ez gaituztela kontuan hartuko, eta ez bageunde bezala ekingo diotela berenari. Esan,

esaten dute baina ezingo dute bete. *Zazpi puinalek* hornituko dute euren kongresua eta jasan beharko dute haien dantza. Ezingo dute ebidentzia ezkutatu. Rajoyrenak gure garai bateko entrenatzaile desgaitu harena dakarkit gogora, “arerioari, urik ere ez” agintzen zigunean. Porrota bermatuta. Lau bat hartu eta ederki umilduta etxeratzten ginen burumakur. Ez zuen luzaz irau, bota egin genuen. ■

